

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEZAKO UDALA

Lezako HAPOan herritarren partaidetzarako planaren iragarkia

46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena, onetsi da. 3. artikuluan, herritarrek parte hartzeko plana Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikokoan argitaratzeko betebeharrak ezartzen da, administrazio publiko sustatzailearen arabera.

Lezako HAPOsk herritarren partaidetzarako plan bat du, 2019ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran onetsi zena. Gaur egun, HAPOaren izapidetzea aurrerapen-fasean dago, irismen-dokumentuaren zain. Jaso ondoren, helburuak eta irizpideak ez badatoz bat xedapen gehigarriaren edukiarekin, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) idazteko prozesuarekin jarraitu ahal izango da. Plan hori hasierako onespenerako izapidetu daitekeen proiektua idazteko fasea da, eta bertan herritarren partaidetzarako zenbait ekintza aurreikusten dira. 46/2020 Dekretuan HAPOa izapidetzeko falta denerako adierazitakoa betetzeko, planaren izapidetzea amaitu arte aurreikusitako herritarren partaidetzarako programa argitaratzen da jarraian.

Partaidetzarako Plana Aurrerapen fasearen amaieran dago; Aurrerapenaren Memoriako gatalean (Herritarren Partaidetza Prozesua) Aurrerapenaren Dokumentua jendaurrean jarri arte jarraitutako parte-hartze prozesua jasotzen da.

Aurrerapenaren jendaurreko erakustaldian, 2019ko azaroaren 21etik 2020ko urtarrilaren 21era, herritar guztientzako aurkezpen irekia egin zen. Saio horri esker, gune guztietako biztanleei aurrerapenean planteatutako gaiak argitu eta erraztu ziren, eta parte hartze zabala izan zen. Hori dela eta, hasierako onspena jendaurrean den bitartean eskema bera errepikatzea proposatzen da. Hasiera batean aurreikusitako partaidetzarako plana atzeratu egin behar izan zen COVID-19k sortutako pandemiaren ondorioz.

Jarraian, HAPOa behin betiko onetsi arte aurreikusitako lan programa azaltzen da; adierazitako datak eta saioak partaidetza prozesuak berak eskatzen duenaren arabera egokituko dira; nolahi ere, egiten den saio bakoitza iragarri egingo da, eguna, ordua, lekua eta edukia aldeztatik adierazita, iragarki taulen, udalaren webgunearen eta emaileen bidez, giza talde guztiei.

Lanaren programa eta kronograma

Hasierako onespenerako plana egiteko fasearen erdi aldera	Nahiz eta herritarren parte hartzeak interes berezia duen planaren estrategia ezartzen den Aurrerapenaren fasean, esperientziak erakusten du planaren idazketan ere auzotarren oharrak eta iradokizunak izatea komeni dela. Saioa bizilagunekin, HAPOren oinarritzko proiektua azaltzeko. Proiektu horrek modu eskematiko eta argian jasoko ditu HAPOren hirigintza-araudian artikulua bidez garatu beharko diren zehaztapenak. Dokumentazio horrek, Planaren planoen zirriborroekin batera, oharrak eta ekarpenak jasotzeko oinarri nahikoa emango du.
Ondoren	Aurreko bileren arabera azterketa sakonagoa eskatzen duten gai eta auzi espezifikoekin bilerak edo lan saioak prestatuko dira.
Hasieran onartutako HAPOa jendaurrean jartzeko fasean.	HAPOaren edukiaren aurkezpena herritarrei, alegazioak errazago egin ahal izan ditzaten.

Leza, 2020ko uztailaren 20a

Alkatea

JOSÉ ANTONIO SUSO PÉREZ DE ARENAZA